

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Aste honetan Nafarroako Ubideko lehen fasearen zabaltzearen eremu ureztagarriko obren lizitazioa deituko da, 147,5 milioiko inbertsioa duena

Nafarroako Gobernuak ere gehienez 592 milioiko gastua erabaki du datozen 30 urteetan obra horien eraikuntza eta ustiapena ordaintzeko

Miércoles, 25 de septiembre de 2013

Nafarroako Gobernuak aste honetan Nafarroako Ubidearen lehen faseko zabaltzearen eremu ureztagarriaren obren lizitazioa deituko du, 147,5 milioi euroko inbertsioa duena.

Zehazki, ostegun honetan, irailak 26, [INTIA](#) sozietate publikoak [Nafarroako Kontratazio Atarira](#) eta [Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera \(EBAO\)](#) lizitazio-iragarkia bidaltzea aurreikusten da, hala, obrak 2014ko lehen hiruhilekoak hasi ahal daitezen.

Gainera, gaurko bilkuran Nafarroako Gobernuak ordaintzeko gehieneko gastua erabaki du obra horiek eraiki eta ustiatzeko. Kontratuak 30 urtez iraungo du eta guztira aldi horretan 592 milioi euroko gastua egingo da, BEZ barne; zifra hori ziur asko gutxitu egingo da esleipendunaren eskintza jakiten denean.

Orain egingo den eremu ureztagarriak guztira 15.275 hektarea berri hartuko ditu Arga eta Ega ibaien erriberetan. Zabaltze hori egin ahal izan da eremu hori Foru Komunitatearen eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmenari esker eta, horretarako, haren eguneratzea sinatu zuten [iragan abuztuaren 28an](#) Yolanda Barcina Lehendakariak eta Miguel Arias Cañete ministroak.



Nafarroako Ubidea.